

**Udalbatzaren Ezohiko Batzarra, 2019ko zezeilaren 18koa****Bertaratutakoak:****Jarduneko Alkate-Udalburua:**

Roberto González de Etxabari Arandia jauna (EAJ/PNV)

Bertaratutako Zinegotziak:

Montserrat Petralanda Gorrotxategi andrea (EAJ/PNV)

Unai Larrabide Ipiña jauna (EAJ/PNV)

Pabxi Abrisketa Olabari jauna (EAJ/PNV)

Ana Belen Alberdi Eguiluz andrea (EH-Bildu)

Kepa Mirena Pérez Urraza jauna (EH-Bildu)

Aitor Urieta Guijarro jauna (EH-Bildu)

Itsaso Muruzabal Elezkano andrea (EH-Bildu)

Bilkura ezin duela etorri jakinarazi duenak:

Jon Xarles Idirin Gorrotxategi jauna (EAJ/PNV)

M^a Teresa Camarero Sanchez idazkariak ekitaldiaren fede emanaz, Udalbatza honen Ezohiko Batzarra izan da **lehenengo deialdian**. Goizaldeko **10:00 direla**, Batzarra irekitzat jo da, behin hasteko behar den quoruma dagoela egiaztatuta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.c) artikuluekin eta Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuko 90. artikuluekin bat etorriz. Ondoren, gai zerrendako gaiak aztertu dira.

1. 2019 Ekitaldiko Aurrekontu Orokorra.

Idazkariak argi azaldu dauzdeialdiagaz batera banandu diran aurrekontu orokorrari buruzko hiru txostenak; laburbilduz, lehenengoan aurrekontuak orekatuak dirala jasoten da, eta aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa eta gastuaren araua beteten dirala, guztia termino kontsolidauetan. Jakinarazi da osoko bilkurari jagokola onartzeko eskumena, eta gehiengo sinplea behar dala, eta ostean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dala.

Bigarrenean, ekonomiko-finantzariora, aurrekontua egiterakoan zeintzuk kapitulu hartu diran kontuan jasoten da, eta azken urteetako bilakaera kontuan izanda tasa batzuk egokitzeko beharizanari buruzko ohartarazpenak emoten dira (zehazki, frontoia, udal lokalak eta txokoa erabiltea, gastuak nabarmen handitu diran arren tasak mantendu egin diralako). Derrigorrezko gastuei aurre egiteko beharrezkoak diran kredituak zelan esleitzen diran, eta abar.

Hirugarrena aurrekontu-egonkortasunari eta gastuaren aruari buruzko txostena da. Honetan, zehatz-mehatz xehekatuta dator Udalaren zein Egoitzaren ganeko informazioa, aurrekontu kontsolidauak, doitu ondoren, finantza-egonkortasuna eta gastu-araua zelan beteten dauazan ikusteko.

Unai Larrabide zinegotziak berba hartu eta aitatu dau partidetan dagozan eta zuzenduko diran akats batzuez ganera, azken batzordeen ostean aldaketa pare bat egin dirala eta azaldu egin gura dauazala.

Alde batetik, baserriak konpontzeko diru-laguntza batzuk jasoteko aukera aitatu gendun, batzorde bat egingo gendula. Printzipioz, baztatu egin dabe batzordeena. Udaletxeko luminariantzako be diru-kopuru bat esleitu zan, kendu egin dana. Partida horren zenbatekoa banantzea erabagi da; holan, honen zati bategaz udal bideen mantentze-lanetarako partida handitu da, eta, besteagaz, Zubialden egitekoak diran lanak. Ikusi dabe bere garaian bideratutako zenbatekoa eskas samarra zala eta horretara bideratu dabe.

Beste alde batetik eta EH-Bilduk aurkeztutako proposamenei jagokenez. Lehenengo puntua inbentarioari jagoko. Udal bideen eta HAPoren gaia jorratzeko



batzorde bat egin behar da, egungo egoeraren barri emoteko. Gobernu taldeak ia-ia amaitutzat jotzen dau udal bideen inbentarioa. Eta lursailen inbentarioari jagokonez, aurrerago egiteko asmoa dago.

Bigarren puntua, liburutegia. Gobernu Taldeak liburua gaur egun dagoen tokitik ez mugitzea erabagi dau, eta baita be irisgarri izateko jagokozan lanak egitea. Diru-laguntza bat eskatu da eta ez dogu erantzunik jaso oraindino.

Hirugarren puntua, elkarteentzako diru-laguntzak. Aurten dirua mantenduko da eta udalekuen hirugarren astea kontuan hartuta, 13.000 eurora igo da partida; halan dabe, iaz udalekuetan egon ziran familiei galdera-sorta txiki bat egitea pentsau da, zelan ikusten daben galdetzeko. Badaki azken urteetan balorazino batzuk egin dirala, parte-hartzea urria izan dan arren, eta hau agertu da puntu batzuetan. Aurreko urteetan parte hartu daben familien eritxia jakin gura da. 13.000 eurora igoko da partida, baina inkesta egingo da.

Ganeratu dau inbertsinoetan ez dagoela aldaketarik azken batzordeetan esandakotik aparte, eta eskolarako diru-laguntzari jagokonez, eskatuta dago baina ez da erantzunik jaso.

Ana Belen Alberdi zinegotziak esan dau azken aldiagaz alderatuta aldaketa batzuk ikusi dabezala, eta honeek aitatu eta jagokozan azalpenak jaso nahi dabezala.

Bardintasunari jagokon partida, xehatu ostean, argiago geratzen dala ikusi dabe, eta baita be igoera bat egon dala. Dana dala, argitasuna bilatuz, Begitu eta Geuria bame daukazan partida bat dago. Bere ustez, argiago geratu daiten eta argitalpen engaitiko gastu-datua hobeto ezagutzeko, hobe litzateke atala xehatzea, zer emoten jakon Begituri, zer Geuriari eta kapitulu osoan zer jagokon argitalpenei.

Ikusi dabe, baita be, beraien proposamenak ez dirala islatuta geratu aurrekontuetan. Udal bideena egiten bada, ondo, baina kontu batzuetan legea bete beharra dago eta hau luzatzen ari dan antxinako kontua da. Ikusten dabenean ongi etorria emongo deusie, baina bitartean itxaron egin behar dabe. Beste horrenbeste uste dabe liburutegiaren ganean. Beraien ustez legez kanpo dago eta ez dau beteten bete beharrekoa. Irisgarritasuna hobetzea ondo dago, baina horrek ez dau esan nahi liburutegiaren erabilera hobetuko danik, ez da hobetuko ez azpiegitura ez erabilera, abiapuntua bera baita. Bere Taldeak bardin jarraituko dau. Esanda daukie eta errepikatzea da, baina liburutegi eredu aldatu beharra dago. Gazteak ikasteko leku bat eskatzen dabiz eta leku hau ez dabe liburutegian aurkitzen. Udalak horretarako lekuak izanda, ez dabe ulertzen zergaitik ez den urrats hori emoten. Diru-laguntza baten bidez hobetu gura da irisgarritasuna? Ongi etorria izan daitela, baina beste beharrezana be badago, gazteek eta gazte ez diranek be badaukie eta ez dabe ulertzen Udalaren jardute ezaren arrazoia, ez baitau pisuzko arrazoirik emoten.

Udalekuen diru-laguntzei buruz, ikusten dabe orain badagoela dirua eta herriko eragile aktibo lez elkarteak egiten dauan lana ikusita, bere alde emondako urrats txiki egoki bat dala uste dabe. Ez dabe beharrezkotzat jotzen Udalekuei buruz galdetzearena. Eskaintza bat egin ostean balorazino bat egin adteke eta kitto. Aldiz, uste dau garrantzi handiagoa emon beharko litxakiola izena emoten daben ume guztiek emoten dan zerbitzurako begirale kopuru nahikoa izatea, baita segurtasunaren ikuspuntutik be.

Aitor Urieta zinegotziak aitatu dau suteen aurkako partida txiki bat jasoten dala aurrekontuetan. Gogoan dauka honegaz hasi zanean proiektu osoa zala, ez zala auzoak hornitzea soilik, dagoen materiala eta honen erabilera kontuan hartuta suteen aurrean jentea modu sistematikoan prestatzea be bame hartzen eban. Faltan botaten dabe hori. Zenbateko txiki bat esleituta dago eta uste dau beste lekuren batean armairuak jarteko izango dala, baina bestea egin barik jarrea zein ez jarrea gauza bera dalakoan dago.

Puntu honi jagokonez, aspalditik ez dala berrikusketarik egiten erantzun dau Larrabide zinegotziak. Dauden ureztatze-ahoak eta ur-harguneak errepasau nahi dira,



zelan dagozan ikusteko, askotan hautsita dagozalako edo, dana dalakoagaitik ez dabelako funtzionetan, eta udalerriko puntu guztiak berrikusiko dira aurrekontua zenbatekoa dan ikusteko.

Urieta zinegotziak dino hori ondo dagoela eta beharrezkoa dala azpiegituraren mantentze-lanak egitea, baina bere Taldeak uste dau bestea be osagarria dala. Osotasunez ikusi ezean, jenteak erabilten ez dakien azpiegitura bat euki daiteke.

Gaia bozketara eroanda bardinketa gertatu da EAJ/PNV Taldeko 4 zinegotzien aldeko eta EH-Bildu Taldeko 4 zinegotzien aurkako botoen artean; honen aurrean, berriro bozkatu, eta berdinketak bere horretan iraun dau. Hori holan, Toki araubidearen Oinarriak arautzen dauazan apirilaren 2ko 7/1982 Legearen 122.2 artikuluan, eta Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamentua eta Araubide Juridikoa onartzen dauan zemendiaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren 100.2 artikuluan ezarritakoa betez, Zeberioko Udalbatzak Jarduneko Alkatearen kalidarezko botoagaz **onartu dau:**

Lehenengoa. 2019ko ekitaldirako proposatu den udal aurrekontuaren proiektua onartzea:

Zeberioko Udala
Diru-sarreraren egoera

A) Diru-sarrerak eragiketa arruntengatik

Atalak	Izena	Euroak
1	Zuzeneko zergak	180.600,01
2	Zeharkako zergak	40.000,00
3	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	100.130,12
4	Transferentzia arruntak	1.063.458,38
5	Ondare-sarrerak	49.000,01

B) Diru-sarrerak kapital-eragiketengatik

6	Inbertsio errealen besterentzea	0,00
7	Kapital-transferentziak	39.817,68
8	Finantza-aktiboak	2.704,50
9	Pasibo finantzarioak	0,00

Guztira 1.475.710,70

Gastuen egoera

A) Gastuak eragiketa arruntengatik

Atalak	Izena	Euroak
1	Langileria-gastuak	427.852,52
2	Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	647.119,16
3	Gastu finantzarioak	100,01
4	Transferentzia arruntak	123.130,63

B) Gastuak kapital eragiketengatik

6	Inbertsio errealak	272.099,38
7	Kapital-transferentziak	0,00
8	Finantza-aktiboak	5.409,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00

Guztira 1.475.710,70

Eusebio Aldekoa Egoitza Fundazioa

Diru-sarreraren egoera

A) Diru-sarrerak eragiketa arruntengatik

Atalak	Izena	Euroak
1	Zuzeneko zergak	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00
3	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	312.075,00



4	Transferentzia arruntak	643.020,50
5	Ondare-sarrerak	50,00
B) Diru-sarrerak kapital eragiketengatik		
6	Inbertsio errealen besterentzea	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00
Guztira		955.145,50

Gastuen egoera

A) Gastuak eragiketa arruntengatik		
Atalak	Izena	Euroak
1	Langileria-gastuak	732.041,60
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	217.944,13
3	Gastu finantzarioak	100,00
4	Transferentzia arruntak	0,00
B) Gastuak kapital eragiketengatik		
6	Inbertsio errealak	5.059,77
7	Kapital-transferentziak	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00
Guztira		955.145,50

Aurrekontu Kontsolidatua**Diru-sarreraren egoera**

A) Diru-sarrerak eragiketa arruntengatik		
Atalak	Izena	Euroak
1	Zuzeneko zergak	180.600,01
2	Zeharkako zergak	40.000,00
3	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	412.205,12
4	Transferentzia arruntak	1.706.478,88
5	Ondare-sarrerak	49.050,01
B) Diru-sarrerak kapital eragiketengatik		
6	Inbertsio errealen besterentzea	0,00
7	Kapital-transferentziak	39.817,68
8	Finantza-aktiboak	2.704,50
9	Pasibo finantzarioak	0,00
Guztira		2.430.856,20

Gastuen egoera

A) Gastuak eragiketa arruntengatik		
Atalak	Izena	Euroak
1	Langileria-gastuak	1.159.894,12
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	865.063,29
3	Gastu finantzarioak	200,01
4	Transferentzia arruntak	123.130,63
B) Gastuak kapital eragiketengatik		
6	Inbertsio errealak	277.159,15
7	Kapital-transferentziak	0,00
8	Finantza-aktiboak	5.409,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00
Guztira		2.430.856,20

Bigarrena. Espedienteari erantsitako Aurrekontua Betearazteko Oinarriak onartzea.

Hirugarrena. 2019ko aurrekontu plantilla onartzea (espedienteari erantsi zaio).



Laugarrena. Jendaurrean jartzea, udaletxeko iragarki ohoan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 15 egun baliodunaz. Epeak irauten duen bitartean, egokitzat jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira Udalbatzaren aurrean.

Bosgarrena. Jendaurrean egoteko epean erreklamaziorik egiten ez bada, onarpen-akordioa behin betikotzat hartuko da.

2.Udal barruko erabilera plana.

Udalaren barrura begirako euskara normalizetako erabilera plana azaldu dau euskera teknikariak. Orain arte egindanagaz honako alde hau dago: Eusko Jaurlaritzan, udaletan eta aldundietan planak egin dira 80ko hamarkadatik aurrera, baina balorazino egokirik euki ez daben planak izan dira Nahiko azaleko balorazinoa egiten jaken, oso gaxa baitzan balorazino zehatz bat egitea. Honen aurrean, Eusko Jaurlaritzak balorazino objektibo bat egiteko tresna bat sortu dau lehenengoz, udal guztiek ontzat jo dabena. SIADECOK sortu dau, eta berau, langile guztiei helarazi jaken galdetegi bat da. Langileek ez dabe portzentualki balorau behar izan, oraingoan, holako galderei bai edo ez erantzun behar izan deutse: herritarrekaz hartu-emonak izaten dozuz? idatziak sortzen dozuz? zenbatero? euskeraz sortzen dozuz? elebitan? hizkuntza baten bestean baino gehiago? Langileek galdetegia bete ostean, euskara teknikariek aplikazino baten sartu dabez datuok eta eskuarteaz dozuezan emaitzak urten dira.

Planak, hasteko, datu honeetatik abiatuta egindako diagnostiko bat dauka. Ostean, datozen lau urteetan nora heldu gura dan zehaztu da. Esaterako, gaur egun kartelen %50 euskeraz dagoela esaten bada, lau urte barru %80an egoteko helburua jarri ahal da. Kopuru zehatzak emoten dira eta, lortzeko, neurri zehatzak proposatu behar dira Euskera Batzordean eta Udal honek onartu egin behar dauz. Ondoren, urte bira, barru be banandu egiongo da galdetegia eta hobetu dan, txarrago gagozan edo zein dan egoera ikusiko da.

Banandutako dokumentazinoari jagokonez, lehenengo eta behin Eusko Jaurlaritzaren babesa daukan Planaren testuingurua azaltzen da. Planok bost urteko plangintzaldien arabera funtzionetan dabe. Plan hau 2018-2022 plangintzaldikoa da, eta dagoeneko 2019 urtean gagoz. Lehenengo urtean fase desbardinak daukazan plana diseinetan da. Lehenengo eta behin Eusko Jaurlaritzak bere plana egin eta beste erakunde publikoek jarraitu beharreko jarraibideak eta arloak proposatzen dauz. Eusko Jaurlaritza 2018ko hasieran hasi zan bere plana egiten, eta bospasei hilabetetan amaitu zuen. Ondoren, beraien plan proposamenak egiteko eskatu eutsen udalei. Udalak plana proposatu ondoren, Eusko Jaurlaritzak plan hori legeagaz bat datorren ala ez esaten dau, gauza batzuk egin ela ez egin proposatzen dau, eta abar. Holan, Zeberioko Udalak urrian bialdu eban bere plan proposamena, eta 2019ko urtarrilean iritsi zan egokitzat jotzen eban jakinarazpena. Halan daze, 2019an gagozan arren, 2018an hasitako lan bat da.

Diagnostikoari jagokonez, gehitu dau atal desbardinetan bananduta dagoela. Lehenengo atala erakundearen irudiari jagoko. Aurretik aitatutako galdetegietako datuak sartu ostean, aurreko planean jasotakoa eta egungo egoera ikusi daitekez. Esaterako, errotulazinoari eta ikus-entzunezkoei jagokonez, %95a euskeraz dagoela eta ganerako %5a ele biz dagoela islatzen da. Argitalpen, iragarki eta ekitaldi publikoen %30 euskeraz dago eta %70 elebiz (aurrean dagoen publikoaren arabera izaten da euskeraz edo elebiz). Ingurune digitalari jagokonez (webgunea eta antzekoak) %100 elebiz dago.

Argitu dau datu honek ekitaldi publikoetakoak dirala, ez zinegotzien batzarretakoak.

Zehaztu dau ekitaldiak neurtzea oso zaila dela; halan daze, beti euskeraz izaten bada euskeraz dela jasoten da. Udal ordezkaria, ekitaldian parte hartzen dauena edo ikastaroa edo dana dalakoa eskaintzen dauena euskalduna izanez gero, baina aurrean



dauenak -bezeroak- gaztelania erabili nahi badau, elebiduna dala jasoten da. Emoten dauenak euskeraz dakianean edo solaskideak gaztelaniaz nahiago dauenean edo beste alternatibarik egon ez eta gaztelaniaz hitz egiten jakonean, ekitaldiak gaztelaniaz izan dirala jasoten da.

Esandakoari jagokionez, Perez zinegotziak esan dau koadroan ez dala agertzen gaztelaniaz soilik emoten dana (adibidez, bardintasanari buruzko berbaldia edo dana dalakoa). Soilik gaztelaniaz bada, hor ez da ageri, elebidun lez islatzen da. Euskeraz dagoena argi dago.

Euskera teknikariak erantzun dau udalak antolatu eta berbaldia gaztelaniaz emon bada emoileak ez dauelako euskerarik jakin eta hemen ez bada ageri, akats bat egon dala, hemen jasoten danez ekitaldien %30 euskeraz %70 elebiz izan baita. Horrek esan gura dau kasu hori ez dala gertatu eta, holan ez bada, jakinarazteko eskatu dau, eta aldatu egingo dauazala datuak.

Perez zinegotziak esan dau bere ustez egin izan dirala holako ekitaldiak, gaztelania hutsean. Karteletatik hasita. Horregaitik esaten dau: euskeraz eta ele biz, baina beste atala falta da.

Euskera teknikariak esan dau holan izanez gero akats bat dagoela. Bardintasan sailetik antolatu bada, eurekaz berba egin eta galdetu egingo jake. Agian % 60a izango da ele biz eta % 10 gaztelaniaz. Datua zuzentzeko oharra jaso dauela esan dau.

Hurrengo atala udalak herritarrekaz daukazan hartu-emonak dira. Idatzizkoen % 6 euskeraz izaten da, % 48 ele biz eta ganerakoa (% 46) gaztelaniaz.

Euskeraz egindako eskaerei -esaterako, obra bat egiteko eskabidea euskeraz-euskeraz jasotako erantzunak be aztertu dira. Kasu honetan, idatzizko erantzunen % 42 euskeraz izaten da, % 48 ele biz eta ganerakoa gaztelania hutsean, eskabidea euskera hutsean egindakoa izan arren.

Ahozko hartu-emoneri jagokenez, % 54a euskeraz izaten da. Atal honetan ez da hartu-emon elebidunik emoten. Bestalde, euskeraz egindako eskaerei emondako erantzunei jagokenez; % 81ean euskeraz erantzun da eta ganerakoan gaztelaniaz. Hemen be sailez sail xehakatuta ageri dira datuak.

Hurrengo atala barruko komunikazinoa eta lan-tresnak osotzen dabe. Idatzizko barne komunikazinoa: hemen, osoko bilkurak, batzordeak eta abar sartuko litzatekez: idatzien % 12 euskeraz izaten da, % 60 ele biz eta ganerakoa gaztelania hutsean. Eremu berean baina ahozkoari jagokenez: % 85 euskeraz izaten da eta % 15 gaztelaniaz. Tresna informatikoak (udaletxeko ordenagailuak, programak, etab.): % 5 euskeraz dagoz, % 25 ele biz eta ganerakoa gaztelania hutsean.

Langileen kudeaketaren ganeko atala be ageri da: lan-kontratuak, nominak, etab. % 25 euskeraz dago, % 33 ele biz eta ganerakoa gaztelaniaz. Laneko prestakuntzari jagokenez (langileen prestakuntza lanetik kanpo, oso urria da) % 5 euskeraz izan da (Udaltop batez be) eta ganerakoa gaztelaniaz. Atal honetan prestakuntza oso urria danez, ehunekoa izugarri igoko litzateke pare bat ikastaro euskeraz eginez gero.

Hurrengo atala kanpo hartu-emonenganekoa da. Idatzizko hartu-emonak administrazinoekaz (Aldundia, Eusko Jauriaritza, Espainiako Gobernua...): hartu-emonen %45,8 euskeraz izaten da, %23 ele biz eta ganerakoa gaztelaniaz. Ahozko hartu-emoneri jagokenez, euskerazko ehunekoa %77raino igoten da eta ganerakoa gaztelaniaz.

Erakunde pribaukaz izaten diran idatzizko hartu-emonetan euskeraren erabilera nabarmen jaisten da: %36 izaten da euskeraz, %6 ele biz eta ganerakoa gaztelaniaz. Ahozko esparruan datuak hobeak dira: 10etik 6tan euskerazko hartu-emonak izaten dabez eta 10etik 4tan gaztelerazkoak.

Azkenengo atala erakunde pribauenganekoa da (batez be herriko elkarteak). Atal honetako hartu-emonak euskeraz izaten dira.



Datu gehiago be badagoz, baina hau proposatutakoaren laburpen bat baino ez da.

Larrabide eta Alberdi zinegotziak esan dabe fotokopiak zuri-baltzean diranez datuak ez dirala ondo hautematen.

Euskera teknikariak adierazi dau lehenengo bi ilaretan egungo egoera jasoten dala, orain arte azaldu dauena. Lehenengo ilara euskerari jagoko eta bigarrena jardun elebidunari. Islatzen ez dana gazteleraz litzateke.

Kepa Perez zinegotziak jakin gurako leuke zergaitik ez dan gaztelerazko ehunekoa ageri.

Euskera teknikariak esan dau proposamena holan planteau dalako dala. Batura, azken emaitza, %100ekoa izatea gura da; hau da, gaztelera hutsean ezebe ez egitea. Beste barik, hirugarren zutabe bat be egin daiteke.

Perez zinegotziak dino erabagi hori ez dala neutrala, ez dala inpartziala gaztelerarentzako zutabe zehatz bat ez agertzea. Erabagi politiko bat da.

Euskera teknikariak dino bera dala zutabe bitan egin dauana, beste udalerrri batzuetan egiten dan lez, helburua gazteleraren atala desagertzea dalako.

Perez zinegotziak dino hori dala helburua, baina ez dau ulertzen zergaitik ez dan gaztelerazko ehunekoa ageri, holan beraiek atara behar baitabe kontua.

Euskera teknikariak aitatu dau akats bat dagoela ehunekoa %100era iristen ez bada, zeozer gaztelera hutsean egiten dala, eta zuzendu beharrekoa dala hurrengoan baturak %100 emon daian.

Alberdi zinegotziak aitatu dau alde batetik euskera teknikariak esaten dau lagaztelera ez dala ageri gaur egun, eta bestetik, euskeraren presentzia %100era heltzeko helburua dagoela. Ondo dago, baina zer gertatzen dan galdetzen deutso bere buruari, nondik datorren eta zergaitik ez dan ebaluetan egoeraren barri izateko. Beste kontu bat izango litzateke helburu estrategikoena edo nondik jo behar dan euskerazkoa %100eraino iristeko.

Euskera teknikariak esan dau jarri ahal dala, kontu tekniko bat dala. Berak ezagutzen dauazan udalerrietan holan egin da, baina zutabe bat erantsi daiteke. Kasu horretan lehenengo ehunekoa euskararena litzateke, bigarrena eremu elebiz dagoena eta hirugarren zutabea gaztelerarena. Guztiak egungo egoerari buruzkoak. Ostean, lortu gura dan euskerazko ehunekoaren zutabea etorriko litzateke, ele biz lortu gura dana eta bost urte barru gaztelera hutsean izatea aurreikusten dana.

Euskera teknikariak aitatu dauenez, bost urte barru hartu-emonen %100 euskeraz izatea litzateke onena, baina herriar batzuk gazteleraz zuzenduko diralakoan dago. Kepa Perez zinegotziak holan dala aitatu dau, eta generatu dau kasu batzuetan euskera idatziak zailtasunak eragiten deutsezala euskaldun batzuei. Euskera teknikariak aitatu dau ondorengo proposatzen dala: nonor euskeraz zuzentzen bajako udalari, udalaren aldetik ezin izango dauala gaztelera hutsezko erantzunik jaso, erantzuna euskeraz edo ele biz jaso beharko dauela.

Ganeratu dau, "hizkuntza erispideak" izenekoak dago zala aurrera pausu honeek emon daitezkan. Plan honen azken atalean islatzen diran hizkuntza erispide honeek udalerrri euskaldunenetan ezartzen diranak dira. Bost urte honeetan danak ezartzea ezinezkoa dan arren, jarraitu beharreko bidea marketan dabe. Euskera Batzordea erispide honeetako batzuk apurka-apurka proposatzeaz arduratuko litzateke, eta honeek izango litzatekez udalak aplika uko leukezanak euskeraren erabileraren ehunekoa igo asmoz. Bere ustez, ona da zifrak eta ehunekoak erabiltea, orain arte "ondo goaz" edo "barto goaz" bezalako eritxian artean mugitzen baitziran... eta egia esateko, ezinezko zan jakitea benetan holan zan ala ez. Egungo sistema be ez da perfektua izango, baina SIADECO fidagarri egiten jako eta ondo egingo dabelakoan dago.

Azkenik, euskera teknikariak argitu dau zinegotziek pentsau ahal dabela, hizkuntza erispide honeek ikusita, dana euskera hutsean egingo dala; halan dabe,



azkenengo paragrafoan zehazten danez, hau guztia euskera sustatzeko egingo dana baino ez da. Honek ez dau esan gura dana euskera hutsean egingo danik, kasu batzuetan gaztelerak lagunduta joango baita. Euskera hutsean edo ele biz izan daiteke, baina hori udalak erabagi beharra dauka.

Gaia bozketara eroan aurretik EH-Bildu Taldearen jarrera azaldu dau Kepa Perez zinegotziak, bere taldea ez dagoela aurka eta ongi etorriak dirala euskera planak. Halan dabe, abstentzinora joko dabela, eta hori hiru arrazoik justifiketan dabela: Euskera teknikariak diagnostikaz jardun dau, baina beste egiteko bat dago aurretiaz. Hau seigarren plana dala jakinda, badakite beste bost plan dagozala aurretik eta, eskatu daben arren, ez dabe honeenganeko ezebez ikusi, ebaluazino bat bez, ez eta balorazinarik, ez azterketarik. Analisi teknikoa eta politikoa. Analisi teknikoari jagokonez, esan daigun euskera batua baino gehiago erabilten dala bizkaiera, edo euskeraz egiten dala berna baina "ni egin dut", "nik etorri naiz" ergatiboagaz. Eta eremu politikoan euskeraren presentzia sartzen da: presentzia bermatu dan ala ez. Ikusten dogunez, ez da holan ez dokumentu askotan ez eta kontratazino ugaritan. Hori da arrazoietako bat.

Bestalde, azken legegintzaldian Gobernu Taldeak egin dauena dago, jakinda aparejadoreak hartu-emon ugari izate dauazala herritarrekaz, gaztelaniaz berba egiten dauan teknikari elebakar bat kontratau da. Era berean, esleipenei jagokonez, eta bere garaian honen inguruan kexatu ziran, Ermitabarriko Taberna Zaharraren esleipenean, plikak atara ziranean, ia-ia %0ko garrantzia emon jakon euskerari; txarto gogoratzen ez badot, %3. EH-Bildurentzako kontraesanean dagoz hori eta Euskeraren Erabilera Normalizetako Plana.

Eta hirugarren arrazoiari jagokonez, gure ustez Zeberio EAJk ez dauka kultur eta hizkuntza proiektu argirik. Ez da erraza ulertzea, esaterako, Benito Lertxundiri dirutza emotea euskera sustatzeko, abeslari handia, etab., baina era berean, euskeragaz lotura zuzena daukien beste ekintza batzuentzako laguntzak egon arren (ez dogu ukatuko), konpentsazino bat sortzen dala. Kosmetika lan bat egin gura da: zifrak emoten dira, baina zehatz-mehatz aztertzen diranean azalkeria handia dagoela ikusten dogu.

Urieta zinegotziak bere adostasuna adierazi dau Kepa Perez zinegotziak esandakoagaz, beraientzako paradoxa da gaur eta hemen Euskeraren Erabilera Normalizetako Planean dokumentuena azaltzea eta aurrekontuetako dokumentu nagusia itzuli barik egotea. Kontuan izanda ia-ia txatilo bat dan dokumentu bat dala, borondate eza ikusten dabe.

Kepa Perez zinegotziak aitatu dauena, azken kontratazinoari buruzkoa. Berak kalean jakin dau aparejadore barri bat dagoela. Hori atzerapauso bat da: azken hirurak euskaldunak ziran. Beti izan dira euskaldunak eta, bat-batean euskeraz ez dakien pertsona bat ekarri da bertora. Seguru dago baliozko pertsona bat dala, baina euskeraren gaia beti kontuan izan dan herri bat da eta orain ez da kontuan hartzen. Paperak dana jasaten dau, baina desbardintasun handia dago esaten eta egiten danaren artean.

Gaia bozketara eroanda, EAJ/PNVko 4 zinegotziek alde bozkatu, eta EH-Bilduko 4 zinegotziek abstentzinora jo dabe; hori holan, **gehiengo osoz** onartu da euskeraren barne erabilera plana.

3.Euskera Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP).

Euskara-teknikariak azaldu dau plan bat baino gehiago udalerrirako jarraibideak dirala, ez Udalarentzat. Euskara sustatzeko jarduerak antolatzerakoan egin beharreko bideak edo dagozan helburuak dira. Eusko Jaurlaritzak zerrenda zabal bat egin eta bialtzen dau, eta euskaldunen ehuneko handiena dagoen herrietan, normalean, honeek aukeratzen dira. Zertarako da? Esaterako, urtean zehar Euskaraldia edo umeen artean



euskera sustatzeko beste jardueraren bat antolatzea pentsau eta diru-laguntza eskuratu gura bada, Plan hau onartuta euki behar da.

Alberdi zinegotziak galdetu dau ea behin betikoa edo behin-behinekoa dan Plan hau.

Euskera teknikariak erantzun dau onartzen dana behin betikoa izango dala. Osoko bilkurara proposamen bat aurkezten da eta horregaitik azaltzen da «definitu» lez; osoko bilkurak onartu ostean, berak ordenagailuan sartu eta «behin betiko» lez kalifikauko da.

Alberdi zinegotziak esan dauenez, lehenengo proposamen bat zala uste eban bere Taldeak, gero garatu ahalko zala.

Euskera teknikariak ezetz erantzun dau, behin betikoa dala baina gero, ekintza zehatzak proposatzerakoan, garatu egingo dala.

Aitor Urieta zinegotziak esan dau hau esparru bat bezalakoa dala, gero gainontzekoa batu beharko jakona, baina ez dagoela bermatuta, adibidez, hor agertzen diran esparru guztietan jardutea.

Euskara teknikariak erantzun dau, normalean euskaldunen proportzino handiena daukin udalerrientzat egiten diren proposamenak direla honeek. Udalerrri honeetzat komenigarriak diran proposamenak dira; halan dabe, badaezpada, amaierako ohar lez, ESEPen jaso bako beste gastu orokor, diru-laguntza eta ekintza batzuk be aitutzen dira. Badaezpada, laur urte honeetan zeozer barria sortuko balitz.

Gaia bozketara eroanda, EAJ/PNVko 4 zinegotziek alde bozkatu, eta EH-Bilduko 4 zinegotziek abstentzinora jo dabe; hori holan, **gehiengo osoz** onartu da Euskera Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP).

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du batzarra, 11:05 orduak direla; eta aztertutakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut Roberto González de Etxabari Arandia alkate-ordearen jaunaren oniritziarekin, eta nire sinadurarekin egiaztatzen dut.

O.E.

Alkatea-Ordearen